

HERRI TAUPADA. HERRI BULTZADA

Euskadi Eraldatzeko Manifestua

EUSKADIKO KOORDINAKUNDEA

Kaleko taupada berreskuratzeko garaia da. Gure errealitate eraldatzeko bultza egiteko garaia da. Horretarako tresna baliagarria izan behar dugu.

Pandemia osteko azken urteetan, Euskadin berregite politikoaren urteak izan dira nagusi. Urte hauetan alderdi politiko aurrerakoiei babesa eman dieten pertsonen ehunekoak gora egin du, alderdi kontserbadoreenen kaltetan.

Aldi berean, izaera sozialeko aldarrikapenek modu zabalagoan bete dute euskal agenda politikoa, eta, oraingoz, alde batera utzi izan dituzte izaera identitarioagoko aldarrikapenak. Gatazkak azken hilabeteetan garatu dira eta etorkizunekoetan ere garatuko dira gizarte eta lan-eskubideen arloan. Sektore publikoko grebak, mobilizazioak beste behin ere euskal eskola publikoa bigarren maila batean uzten duen hezkuntza-lege baten aurrean, gure produkzio sareko enpresa handietan gertatzen diren lan-gatazkak, industria-politika seriorik eza agerian utziz, zaintzaren aldeko mobilizazio feministak, etxegabetzei erantzuteko mobilizazioen kopuruaren igoera edo gure ingurunearen defentsarako mota desberdinetako mobilizazioak, tokiko gaietatik hasi (esaterako, zuhaitz-inguruneak babestea) eta lurraldean zehar inolako plangintzarik gabe parke eolikoaren proiektu handiei aurka egitea bezalako mobilizazioekin.

Euskadiko kaleak ezker alternatibo eta eraldatzailea tradizionalki mugitu izan garen gakoetan mugitzen dira. Beraz, hurrengo etapan, tresna baliagarria izan behar dugu taupada hori bideratzeko eta Euskadik gizartea eraldatzeko behar duen bultzada bihurtzeko. Eraldaketa bat, honako oinarrien inguruan:

JUSTIZIA SOZIALA ETA FISKALA bultzatzen duen ikuspegitik. Osakidetza bezalako zerbitzu publikoen pribatizazio-politiken aurrean, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzeari uko egiten diotenen aurrean, legezko tresna guztiak

martxan jarriz, gure euskal eskola publikoa eta diru publikoz mantendutako eskola pribatuak parekatzen dituen hezkuntza-lege baten alde egiten dutenen aurrean, kapital handien poltsikoaren neurrira politika fiskala egiten dutenen aurrean, herri langile bat dago taupadaka, eta prest dago aldaketaren alde bultzatzeko.

Ikuspegi **FEMINISTATIK**. Hilketari matxisten aurrean. Kristalezko sabaien apurketaren alde. Diskriminazioa eta diskurtso heteropatriarkalari irrimo aurre egiten diona. Euskal herri langile feminista bat dago, antolatzen dena, eta gai da errealitatea gainditzeko, greba feminista orokorrak deitzeko, erresistentzia antolatzeko eta mezu hau zabaltzeko: Bat jotzen badute, denok jotzen gaituzte.

Ikuspegi **EKOLOGISTATIK**, izan ere, energia-enpresa handiek eta hidrokarburo-enpresa handiek babestutako greenwashing politiken eta atzerriko kapitalek hartutako parke eoliko handien instalazioen aurrean, euskal herri langileak kontziente da bere inguruneak duen garrantziaz, planeta bakarra dugula eta benetako deskarbonizaziorako, ekonomia zirkular erreal bat abian jartzeko eta beharakadarako (dekrezimendurako) bideak bakarrik ahalbidetuko duela gure herria bihar arte iristea.

INKLUSIOA, BIZIKIDETZA ETA FEDERALISMOA sustatzen duen ikuspegi batetik, Espainia monarkikoaren aurrean, eta autonomien edo independentziaren arteko dikotomia faltsu batean kokatu nahi gaituztenen aurrean, euskal herri langile bat dago, gehienbat, estatu-eredu errepublikar eta inklusibo baten aldeko apustua egiten duena. Gure herriaren aniztasun nazionala eta linguistikoa bermatu eta sustatzeko, herriak aniztasunean batzeko proiektu federal baten aldeko apustua egiten duena. Euskararen ezagutza eta erabilera eskubide unibertsal subjektibo eta blindatua izango den euskal gizartea aldarrikatzen duena.

Eta euskal langileen gehiengo sozial horri bide politikoa eta elektorala emateko, aldaketaren alde taupadak eta bultzada egin nahi duen horri erantzuteko, ezinbestekoa da euskal ezker alternatibo eta eraldatzaileko erakunde politikook, Ezker Anitza-IU barne dagoena, era nekaezin batean lan egitea gure erakundeen mugak ere gaindituko dituen ahalik eta espazio zabalena sortzeko.

Euskal langileen gehiengo sozial horren nahiak eta proposamenak ordezkatzeko dituen programa bat sortzeko prozesu herrikoi bat abian jartzea da helburua, gure kaleetan taupadaka dabilena eta aldaketa politikoaren alde egin nahi duena.

Parte hartzen dugun eragileen eta pertsonen aniztasuna islatu behar duten programa eta hautagaitzak, printzipio komun batzuen inguruan artikulatuak, eta eragile eta pertsona indibidual berrien adostasuna, irekiera eta inklusioa sustatuko duten funtzionamendu-arauak dituztenak. Horrela bakarrik izango baikara gai, guztion artean, Euskadi eraldatzeko tresna erabilgarri bat eraikitzeko.

Horregatik, Ezker Anitza-Izquierda Unidatik prozesu programatiko ahalik eta zabalena artikulatzeko deia egiten dugu, justizia sozial eta fiskalaren, feminismoaren, ekologismoaren eta inklusibotasunaren aldeko proposamena eta hautagaitza sortzeko eta bizikidetzaren, demokrazia sustatzeko helburua lortzeko. Kaleetan taupadaka ari den Euskadiren alde. Aldaketa soziala bultzatzen duen Euskadiren alde.

Bilbon, 2023ko urriaren 27 a